a) Egindako fakturei buruzko informazioa faktura egin eta lau egun naturaleko epearen barruan hornitu behar da, hartzaileak edo hirugarren batek egindako fakturak direnean izan ezik; izan ere, azken kasu horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 164 artikuluko 2 zenbakian ezarritakoarekin bat, zortzi egun naturaleko epea egongo da informazio hori hornitzeko. Kasu batean zein bestean, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zergaren sortzapena gertatu aurreko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori.

b) Jasotako fakturei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da, faktura kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuta, eta, edozelan ere, eragiketei dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen.

Inportazio-eragiketen kasuan, aduanan likidatutako kuota agerrarazten duen dokumentua kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuko dira lau egun natural horiek, baina, edozelan ere, eragiketoari dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a

a) La información correspondiente a las facturas expedidas, en el plazo de cuatro días naturales desde la expedición de la factura, salvo que se trate de facturas expedidas por el destinatario o por un tercero, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 164 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, en cuyo caso, dicho plazo será de ocho días naturales. En ambos supuestos el suministro deberá realizarse antes del día 16 del mes siguiente a aquel en que se hubiera producido el devengo del Impuesto correspondiente a la operación que debe registrarse.

b) La información correspondiente a las facturas recibidas, en un plazo de cuatro días naturales desde la fecha en que se produzca el registro contable de la factura y, en todo caso, antes del día 16 del mes siguiente al periodo de liquidación en que se hayan incluido las operaciones correspondientes.

En el caso operaciones de importación, los cuatro días naturales se deberán computar desde que se produzca el registro contable del documento en el que conste la cuota liquidada por las aduanas y en todo caso antes del día 16 del mes siguiente al final del



baino lehen hornitu behar da informazio hori.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 66. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa ere lau egun naturaleko epean hornitu behar da, bidalketa edo garraioa hasten den unetik zenbatuta, edo, bestela, kasuan kasuko eragiketako ondasunak jasotzen diren unetik zenbatuta.

Aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren lau eta zortzi egun naturaleko epeak zenbatzeko ez dira aintzat hartuko egun baliogabeak.

2. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketei buruz hornitu beharreko informazioaren kasuan, aurreko paragrafoetan adierazitako epeetan hornitu beharko da informazio hori, eragiketoi araubide berezi hori aplikatu beharko ez balitzaie bezala, baina kontuan hartuta eragiketa horiei lotutako kobrantza edo ordainketa osoak edo partzialak egiten direnean ere zenbait datu hornitu beharko direla.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 70. artikuluan aipatzen diren erregistroko zuzenketan kasuan, zuzenketa horiek jasotzen dituzten fakturazio-

periodo al que se refiera la declaración en la que se hayan incluido.

c) La información de las operaciones a que se refiere el apartado 1 del artículo 66 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, en un plazo de cuatro días naturales, desde el momento de inicio de la expedición o transporte, o en su caso, desde el momento de la recepción de los bienes a que se refieren.

A efectos del cómputo del plazo de cuatro u ocho días naturales a que se refieren las letras a), b) y c) anteriores, se excluirán los días inhábiles.

2. El suministro de la información correspondiente a las operaciones a las que sea de aplicación el régimen especial del criterio de caja deberá realizarse en los plazos establecidos en los apartados anteriores, como si a dichas operaciones no les hubiera sido de aplicación dicho régimen especial, sin perjuicio de los datos que deban suministrarse en el momento en que se efectúen los cobros o pagos totales o parciales de las operaciones.

3. En el caso de rectificaciones registrales a que se refiere el artículo 70 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, el suministro de los registros de facturación



erregistroak hornitu behar dira, hain zuzen, zuzenketok kontuan hartu beharreko aitorpenari dagokion epea amaitu osteko lehenengo hileko 16a baino lehen.»

Sei. Berridatzi egiten da 43. artikuluko f) letra, eta honela geratu da idatzita:

«f) Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren zergapekoak.»

Zazpi. Edukirik gabe geratzen da 47. artikulua.

Zortzi. 65 quinquies artikulua gehitzen da, eta honela geratu da idatzita:

«65 quinquies artikulua. Hiri-finken errentamenduei buruzko informazioa emateko betebeharra.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak urteko aitorpen informatiboa aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan jasotako datuei buruz eta fidantzen gordailuari buruz, Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzko 2016ko

que recojan tales rectificaciones antes del día 16 del mes siguiente al final del periodo al que se refiera la declaración en la que deban tenerse en cuenta.»

Seis. Se da nueva redacción a la letra f) del artículo 43, que queda redactada en los siguientes términos:

“f) Los obligados tributarios a que se refiere el apartado 5 del artículo 39 de este Reglamento.”

Siete. Se deja sin contenido el artículo 47.

Ocho. Se añade un nuevo Artículo 65 quinquies, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 65 quinquies. Obligación de informar sobre arrendamientos de Fincas Urbanas.

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi deberá presentar una declaración informativa anual referente a los datos contenidos en el Registro de Contratos de Arrendamiento de Fincas Urbanas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y al depósito de fianzas de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 42/2016, de 15 de marzo, del depósito de fianzas y del



martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Hain zuzen, aitopen horretan agertu beharko dira, besteak beste, errentatutako ondasun higiezinaren identifikazio-datuak, errentatzaileen zein errentarien zerrenda izenduna, eta kasuan kasuko erredua onartzeko foru-aginduan zehazten den gainerako informazioa.»

Bederatzi. Laugarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta honela geratu da idatzita:

«**Laugarren xedapen iragankorra. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.**

Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorren ezarritakoarekin bat, araudi honen 39 artikuluko 5 zenbakian, 39 duodecies artikuluan zein 39 terdecies artikuluan Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoari buruz egiten diren erreferentziak Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 42.

Registro de Contratos de Arrendamiento de Fincas Urbanas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En particular, en la declaración deberán figurar, entre otros, los datos identificativos de los bienes inmuebles arrendados junto con los de la fianza depositada, relación nominativa de los arrendadores y de los arrendatarios, así como la información que se determine por la orden foral de aprobación del modelo correspondiente.”

Nueve. Se añade una nueva disposición transitoria cuarta, que queda redactada en los siguientes términos:

“**Disposición transitoria cuarta. Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.**

De conformidad con lo dispuesto en la disposición transitoria primera del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, las referencias que se contienen en el apartado 5 del artículo 39 y en los artículos 39.duodecies y 39.terdecies de este Reglamento a la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia deberán entenderse realizadas al Servicio BizkaiBai al que se refieren los artículos 42 y siguientes



artikuluari eta hurrengoetan aipatzen den BizkaiBai zerbitzuari buruz egindakotzat joko dira (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), harik eta Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu telematikoak egoitza elektronikoko horretan txertatu arte.»

Hamar. Bosgarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta honela geratu da idatzita:

«Bosgarren xedapen iragankorra. 2018ko urtarrilari eta otsaileko lehenengo hamabostaldia buruzko informazioa hornitzea.

Araudi honen 39. terdecies artikuluan ezarritakoa gorabehera eta zergapekoek egoki inplementatu ahal ditzaten informazioa hornitzeko beharrezkoak diren sistema informatikoak, 2018ko otsailaren 20ra arte luzatutzat joko dira 2018ko urtarrilean eta 2018ko otsaileko lehenengo hamabost egun naturaletan amaitzen diren informazioa hornitzeko epeak.»

del Reglamento de Gestión de los Tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio, hasta el momento en el que los servicios telemáticos del Departamento de Hacienda y Finanzas se incorporen a la mencionada Sede electrónica.”

Diez. Se añade una nueva disposición transitoria quinta, que queda redactada en los siguientes términos:

“Disposición transitoria quinta. Suministro de información correspondiente al mes de enero y a la primera quincena de febrero de 2018.

No obstante lo dispuesto en el artículo 39.terdecies de este Reglamento y a los efectos de posibilitar una adecuada implementación de los sistemas informáticos correspondientes por parte de los obligados tributarios, los plazos para el suministro de la información que concluyan durante el mes de enero de 2018 y durante los primeros quince días naturales del mes de febrero de 2018, se entenderán prorrogados hasta el día 20 de febrero de 2018.”



2. artikulua. Aldatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

h) letra gehitzen zaio Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 68. artikuluari (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), eta honela geratu da idatzita:

«h) Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikuluko 5 zenbakian aipatzen diren pertsonak eta entitateek ez betetzea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko betebeharrak (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Luzapenaren iraupena hau izango da: aitorpenak ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denetik aitorpena aurkeztu edo erregistratu artekoa.»

3. artikulua. Aldatzea Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko

Artículo 2. Modificación del Reglamento de Gestión de los Tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio.

Se añade una nueva letra h) al artículo 68 del Reglamento de Gestión de los Tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio, que queda redactada en los siguientes términos:

“h) El incumplimiento de la obligación de llevanza de los libros registro del Impuesto sobre el Valor Añadido a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia para las personas y entidades a que se refiere el apartado 5 del artículo 39 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre. La dilación se computará desde el inicio de un procedimiento en el que pueda surtir efectos, hasta la fecha de su presentación o registro.”

Artículo 3. Modificación del Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de



4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

Honako aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudian:

Bat. Berridatzi egiten da 5. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Araudi honen 2. artikuluan aipatzen den betebeharra eragiketen hartzaileek edo hirugarren batzuek bete behar dute materialki. Edozein kasutan, enpresaburua edo profesionala edo faktura egin behar duen subjektu pasiboa arduratuko da titulu honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzeaz.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu badute, bada, orduan, zentsu-aitorpen bat

la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero:

Uno. Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 5, que queda redactado en los siguientes términos:

“1. La obligación a que se refiere el artículo 2 podrá ser cumplida materialmente por los destinatarios de las operaciones o por terceros. En cualquiera de estos casos, el empresario o profesional o sujeto pasivo obligado a la expedición de la factura será el responsable del cumplimiento de todas las obligaciones que se establecen en este título.

En el caso de las personas y entidades a que se refiere el apartado 5 del artículo 39 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre, que hayan optado por el cumplimiento de la obligación de expedir factura por los destinatarios de las operaciones o por



aurkeztu beharko dute arestian aipatutako pertsona eta entitate horiek, eta komunikatu beharko dute zer egunetatik egiten duten hautu hori eta, hala eginez gero, zer egunetan egiten dioten uko eta uko horrek zer egunetatik dituen ondorioak.»

Bi. Berridatzi egiten da 18. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«18. artikulua. Fakturak igortzeko epea.

Fakturak igortzeko betebeharra —zeina 17. artikuluan ezartzen den—une honetan bete behar da: fakturak egiten diren une berean; edo, hartzailea enpresaburua edo hala jarduten duen profesional bat denean, eragiketa horri dagokion zergaren sortzapena gertatu osteko hileko 16a baino lehen; edo, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, eragiketa egin osteko hileko 16a baino lehen.»

Hiru. Berridatzi egiten da bigarren xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

terceros, deberán presentar una declaración censal comunicando dicha opción, la fecha a partir de la cual la ejercen y, en su caso, la renuncia a la misma y la fecha de efecto.”

Dos. Se da nueva redacción al artículo 18, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 18. Plazo para la remisión de las facturas.

La obligación de remisión de las facturas que se establece en el artículo 17 deberá cumplirse en el mismo momento de su expedición o bien, cuando el destinatario sea un empresario o profesional que actúe como tal, antes del día 16 del mes siguiente a aquél en que se haya producido el devengo del Impuesto correspondiente a la citada operación o en el caso de las operaciones acogidas al régimen especial del criterio de caja antes del día 16 del mes siguiente a aquel en que se hubiera realizado la misma.”

Tres. Se da nueva redacción a la disposición adicional segunda, que queda redactada en los siguientes términos:



«Bigarrena. Energia elektrikoaren emate jakin batzuen fakturazioa.

1. Sistemaren operadoreak dokumentatu behar ditu Sektore Elektrikoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 28. eta 30. artikuluetan zein Energia elektrikoa sortzeko merkatua antolatu eta arautzen duen 1997ko abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren elektrizitatearen ekoizpen-merkatuari lotutako energia elektrikoaren trukeak, Sektore Elektrikoari buruzko legeak eta hura garatzen duen araudiak ematen dizkion funtzioen arabera.

2. Energia elektrikoaren emateak operadore horrek —energiaren enpresa hornitzaileen izenean eta haien kontura— emandako fakturen bidez dokumentatu behar dira, eta, haietan, araudi honen 6. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren datu guztiak jaso behar dira. Eragiketaren hartzailea identifikatzeko datuen kasuan, sistemaren operadorearen identifikazio-datuak adierazi behar dira, eta azken horrek emandako fakturaren jatorrizkoa gorde beharko du, eta kopia bat igorri hornitzaileari.

3. Sistemaren operadoreak faktura bana egingo du eskuratzaileko, bakoitzari egindako emateak jasotzeko, eta, bertan, araudi honen

“Disposición adicional segunda. Facturación de determinadas entregas de energía eléctrica.

1. Los intercambios de energía eléctrica asociados al mercado de producción de energía eléctrica a que se refieren los artículos 28 y 30 de la Ley 24/2013, del Sector Eléctrico, y el artículo 2 del Real Decreto 2019/1997, de 26 de diciembre, por el que se organiza y regula el mercado de producción de energía eléctrica, deberán ser documentados por el operador del sistema, de acuerdo con las funciones que le son conferidas en la Ley del Sector Eléctrico y normativa de desarrollo.

2. Las entregas de energía eléctrica se documentarán mediante facturas expedidas por dicho operador, en nombre y por cuenta de las entidades suministradoras de la energía, en las que deberán constar todos los datos enumerados en el apartado 1 del artículo 6 de este Reglamento, siendo los relativos a la identificación del destinatario de la operación los de identificación del operador del sistema, que deberá conservar el original de la factura expedida y remitir la copia al suministrador.

3. El operador del sistema expedirá una factura por las entregas efectuadas a cada adquirente, en la que deberán constar todos



6. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren datu guztiak jaso behar ditu. Fakturaren egilea identifikatzeko datuen kasuan, sistemaren operadorearen identifikazio-datuak adierazi behar dira, eta azken horrek emandako fakturaren jatorrizkoa gorde beharko du, eta kopia bat igorri hornitzaileari.

4. Araudi honetan xedatutakoari dagokionez, xedapen gehigarri honen aurreko zenbakietan aipatutako dokumentuetatik sistemaren operadoreak gorde behar dituenak fakturatzat hartuko dira, eta Zerga Administrazioaren esku geratuko dira, preskripzio- eta iraungitze-epeetan zehar, faktura horietan islatutako energia elektrikoaren emateak direla-eta egin beharreko egiaztapenak egin ditzan.

5. Sistemaren operadoreak hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenean zerrendatu behar ditu energia elektrikoaren hornitzaileek zein eskuratzailerek eginiko eragiketak, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian ezarritako baldintzetan (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsi zuen), baina erregistratu behar ditu baldin eta xedapen gehigarri honen aurreko

los datos indicados en el citado apartado 1 del artículo 6 de este Reglamento, siendo los relativos a la identificación del expedidor los de identificación del operador del sistema que deberá conservar copia de tales facturas y remitir el original al destinatario de éstas.

4. Los documentos a que se refieren los apartados anteriores de esta disposición adicional que hayan de ser conservados por el operador del sistema tendrán la consideración de factura a los efectos de lo dispuesto en este Reglamento y quedarán a disposición de la Administración tributaria durante los plazos de prescripción y de caducidad para la realización de las comprobaciones que resulten necesarias en relación con las entregas de energía eléctrica reflejadas en las correspondientes facturas.

5. El operador del sistema deberá relacionar en su declaración anual de operaciones con terceras personas, en los términos previstos por el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre, las operaciones realizadas por los suministradores de energía eléctrica y por sus adquirentes, que hayan sido documentadas con arreglo a lo indicado en



zenbakietan adierazitakoaren arabera dokumentatu badira. Aitorpenaren aldian hornitzaile eta eskuratzaille bakoitzak eginiko eragiketen zenbateko osoa adierazi beharko du aitorpen horretan. Bertan, gainera, erosketa gisa jasoko dira hornitzaile bakoitzari egotzitako energia-emateak, eta, salmenta gisa, berriz, eskuratzaille bakoitzari egotzitako energia-eskuratzeak.

6. Edozelan ere, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eragiketei dagokienez, sistemaren operadoreak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari, eta, hala, eragiketa horien tratamenduari dagokionez tributuen arloan garrantzia duen edozein datu, txosten edo aurrekari eskaini behar dio.

Fakturatutako aldiari dagozkion kobratzeko eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak epe osorako energia elektrikoaren emate bakarrari lotuta daudela ulertuko da.

7. Sistemaren operadoreak hirugarren bat gaitu ahal izango du entitate hornitzaileen eta eskuratzaillearen artean kontrako alderdi zentral gisa aritu dadin. Hala, ulertuko da, ondorio guztietarako, ezen erakunde hornitzaileek hirugarren horri egiten dizkiotela energia elektrikoaren emateak eta

los apartados precedentes de esta disposición adicional, indicando, respecto de cada suministrador y de cada adquirente, según corresponda, el importe total de las operaciones efectuadas durante el período a que se refiera la declaración, en la que se harán constar como compras las entregas de energía imputadas a cada suministrador y, como ventas, las adquisiciones de energía imputadas a cada adquirente.

6. En todo caso, y respecto de las operaciones a que se refiere esta disposición adicional, el operador del sistema deberá prestar su colaboración a la Administración tributaria proporcionando cualquier dato, informe o antecedente con trascendencia tributaria para el correcto tratamiento de dichas operaciones.

Los derechos de cobro y las obligaciones de pago correspondientes al período facturado se considerarán vinculados a una única entrega de la energía eléctrica por la totalidad de dicho período.

7. El operador del sistema podrá habilitar a un tercero para que se interponga como contraparte central entre las entidades suministradoras y las adquirentes de modo que se entenderá, a todos los efectos, que las entregas de energía eléctrica son efectuadas por las entidades



erakunde eskuratzailleek hirugarren horri erosten dizkiotela. Kasu horretan, eragiketaren hartzailearen eta faktura egin behar duenaren datuen ordezkarako alderdi zentral gisa gaitutako hirugarren horren datuak jarriko dira, zeinak bere egingo baititu xedapen gehigarri honek kontrako alderdi zentral gisa gaitu duen sistemaren operadoreari fakturazioari buruz esleitzen dizkion betebeharrak.»

4. artikulua. Aldatzea 1996ko otsailaren 27ko 25/1996 Foru Dekretua; Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren ziozko aitortpena egiteko betebeharra araupetu eta zerga horiei dagozkien aitortpen-likidazioak aurkezteko aldiak zehaztu zituen dekretu horrek.

Berridatzi egiten da 1996ko otsailaren 27ko 25/1996 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Bi zenbakia (dekretu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren ziozko aitortpena egiteko betebeharra araupetu eta zerga horiei dagozkien aitortpen-likidazioak aurkezteko aldiak zehaztu zituen), eta honela geratu da idatzita:

suministradoras a dicho tercero y que son adquiridas al mismo por las entidades adquirentes. En este caso, se sustituirán los datos relativos a la identificación del destinatario de la operación y del expedidor por los de dicho tercero habilitado como contraparte central, el cual asumirá las obligaciones relativas a la facturación que esta disposición adicional asigna al operador del sistema que le haya habilitado para actuar como contraparte central.”

Artículo 4. Modificación del Decreto Foral 25/1996, de 27 de febrero, por el que se regula la obligación de declarar en el Impuesto sobre el Valor Añadido y en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y se determinan los períodos de presentación de las declaraciones-liquidaciones relativas a estos Impuestos.

Se da nueva redacción al apartado Dos del artículo 2 del Decreto Foral 25/1996, de 27 de febrero, por el que se regula la obligación de declarar en el Impuesto sobre el Valor Añadido y en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y se determinan los períodos de presentación de las declaraciones-liquidaciones relativas a estos Impuestos, que queda redactado en los siguientes términos:



«Bi. Aurreko azpizenbakian ezarritakoa gorabehera, epe hori bat etorriko da — nahitaez— hil naturalarekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 71. artikuluko 3. zenbakian zehaztutako subjektu pasiboen kasuan.»

“Dos. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, dicho período coincidirá necesariamente con el mes natural, cuando se trate de los sujetos pasivos relacionados en el apartado 3 del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.

Foru-dekretu hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, 1. artikuluko Zortzi zenbakian xedatutakoa izan ezik.

Nolanahi ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 17. artikuluko 3. zenbakiko s) eta t) letretan aurreikusten diren hautua eta komunikazioa 2017ko azaroan zehar egin beharko dira 2018ko urtarrilaren 1etik izan

DISPOSICIONES FINALES

Primera.

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Segunda.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el 1 de enero de 2018, salvo lo dispuesto en el apartado Ocho del artículo 1.

No obstante, la opción y la comunicación previstas en las letras s) y t) del apartado 3 artículo 17 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por el Decreto Foral 205/2008, de 22 de



behar badituzte ondorioak (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

diciembre, que deban surtir efectos desde 1 de enero de 2018, se deberán realizar durante el mes de noviembre de 2017.

Bilbon, 2017ko ren (e)(a)n

En Bilbao, a de de 2017

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ